

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

253

AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 2koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez deialdi publiko bat iragartzen baita Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzako lanpostu hau izendapen aske bidez betetzeko: Goi-kargudunaren idazkaria, 520010 kodea, 190. dotazioa.

Sail honetako Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzan hutsik dago goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua (520010 kodea, 190. dotazioa). Beraz, sail honek erabaki du lanpostu hori (agindu honen eranskinean adierazita dago) izendapen aske bidez betetzeko deialdia iragartzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman ostean. Hauek dira deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan, eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, aipatutako baldintza berdinetan, eta baldin eta lanpostuen zerrendetan deialdiko lanpostuak halako langileek bete ditzaketela azaltzen bada, hauek ere parte hartu ahal izango dute: beste administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek, irakaskuntzako karrerako funtzionarioek, Justizia Administrazioko karrerako funtzionarioek, eta erakunde sanitarioetako estatutupeko langile finkoek.

2.– Aipatutako langileek har dezakete parte deialdi honetan, non eta ez dauden egoera hauetan:

Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita daukaten funtzionarioek ezin izango dute parte hartu, egoera horrek dirauen bitartean.

Norberaren kontuetarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian dauden langileek ezin izango dute parte hartu, ez badute bete eszedentzian egon beharreko gutxieneko denbora.

3.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintzak. Esleitutako lanpostuak jabetzan hartu arte bete behar dira eskakizunak. Parte hartzeko eskakizunak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileek ezin izango dute esleitutako lanpostua jabetzan hartu.

Bigarrena.– Eskabideak.

1.– Hautagaiek Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzara bidali behar dituzte eskabideak, eta, horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Eskabidean, datu pertsonalak eta egun betetzen duten destinoa adieraziko dituzte.

2.– Eskabide-idazkiarekin batera, hautagaiek curriculum vitae-a aurkeztuko dute, eta, bertan, honako datu hauek adieraziko dituzte:

- a) Titulu akademikoak.
- b) Administrazioan eta, hala badagokio, enpresa pribatuetan betetako lanpostuak.
- c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntzak, eta hautagaiek egokitzat jotzen dituzten gainerako merezimenduak.

Eskabidearekin batera, eskatutako baldintzak betetzen dituztela eta adierazitako merezimenduak dauzkatela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek, non eta dokumentu horiek dagoeneko Langileen Erregistroan.

Esandako guztiez gain, aurkeztu beharrezkotzat jotzen dituzten argitalpenak, txostenak edota bestelako agiriak ere aurkez ditzakete.

Hirugarrena.– Ebazpena.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren agindu baten bidez ebatziko da deialdi hau, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Lanpostua lortzen duen pertsonak ezarritako epean hartu beharko du jabetzan lanpostua, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 2a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
SONIA PÉREZ EZQUERRA.

ERANSKINA

Deialdiko lanpostua:

- Izena: goi-kargudunaren idazkaria.
- Kodea: 520010.
- Dotazioa: 190.
- Kidegoak: C1/C2.
- Destino-osagarriaren maila: 18.
- Osagarri espezifikoa: VI-A.
- Hizkuntza-eskakizuna: 2.
- Derrigortasun-data: 2017-03-31.
- Tokia: Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.
- Saila: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo.
- Destinoko udalerrria: Vitoria-Gasteiz.

Lanpostua betetzeko eskakizunak:

- C1 edo C2 kidegoetakoa izatea.
- Administrarien kidegoan edo administrari laguntzaileen kidegoan urtebeteko edo urte biko esperientzia izatea, lanpostua kidego horiei atxikita baitago.